

Ultzamako barietatearen aditzaren berezitasunak: isoglosa nagusienak

ORREAGA IBARRA MURILLO*

O. SARRERA

Txosten honetan, Ultzamera barietatearen aditz sistemaren berezitasun nabarmen batzuk azaltzea dugu helburutzat. Ultzamera deritzon barietatea, Goi Nafarrera Iparraldeko bost azpieuskalkietako bat da. Bost haran geografikoetan zehar hedatzen da barietate hori: Ultzama, Basaburua, Imotz, Atetz eta Anue haranetan.

Hurrengo lerrootan, barietate honen barruan gertatzen diren isoglosa nagusiak aztertzeari ekingo diogu, zeren isoglosa garrantzitsu batzuek erdibitzen dute eremu hau. Isoglosa hauetako gehienek Basaburua bereizten dute alde batera, Imotz harana honen barruan hartzen dutelarik askotan. Bestalde, Ultzama, Anue eta Atetz haranetako hizkerak osatuko du eremu trinko-ago bat, besteetatik aldentzeko dena.

Agi denez, eremu honetako aditzaren beste ezaugarriak aztertzen baditugu, poliformismo nabarmena ageriko zaigu; baina forma hauen aldakortasunak, ez du isoglosa esanguratsuak ezartzeko adina ematen, horregatik ezaugarri nabarmen hauek besterik ez ditugu aztergai izango.

Aldi berean, ezaugarri hauen azterketaren bidez, Ultzamerak ondoko hizkerekin dituen ezaugarriak sakontzeko parada izango dugu¹ Zeren eta, aditz

* Departamento Lingüística y Literatura (UPNA).

1. YRIZARrek bigarren liburukian (1981: 256) egindako bi kuadroen bidez, Bonapartek egindako zenbait flesio parekatzen ditu, goi-nafarreraren barruan dauden barietate guztiak erlazionatuz: (Bera, Elizondo, Arakil, Inza, Irun). Bistan da, aditz sailean goi-nafarrera alde-

sailean Ultzamako euskarak, GN hegoaldekoarekin (eta bereziki Olaibarko barietatearekin) konpartitzen dituen ezaugarriak oso haundiak baitira.

Hona, bada, aztergai izango ditugun ezaugarriak.

2.1.1.1. *El me ha (indef) nau- Arrarás, Goldaraz, Auza, Urrizola*

Ultzameraz, beste barietate askotan bezala, Nork-Nori-Nor eta Nork-Nor aditz sistemen arteko nahasketa, edo hobeki esanda, bigarrenaren galera suertatu da: *Nik zuri ikusi dizut, baiek neri maite direte* etab. dira ohizko erabilerak. Nork-nori-nor sistemak, nork-nor erabat ordezkatu du, nahiz eta Basaburuko zenbait herritan egitura fosildu batzuk gelditu diren: *joko haut!?, Nor zaitut?* bezalakoak. Ordezkaketa hau azken urteotan areagotu da, zeren eta orain gutxi biziago zeuden forma hauek; hona Yrizarrek aurkitutako flexioak, zeinetan nork-nor sistemarenak bizirik agertzen diren².

Aditz forma hauek ikusirik ondorio garbi bat ateratzen da, Nork-Nor sistema aurreko garaietan hedatuago egon zela, eta hain zuzen ere Yrizarrek lana egin zuenean, alternantziak bazeudela. Baina, agi denez, aditz sistema hau galtzen hasi zen euskara pobretzen joan zen bailaretan, alegia, erdaldunagoetan; hain zuzen ere GN hegoaldetik hurbilago zeudenetan: Muzkitz, Berasainen eta abarretan. Euskara osasuntsuago dagoen haranetan, aldiz, bere osotasunean denbora gehiago mantendu da, oraingo Basaburuko arrastoek iradokitzen dutenez: (haut, zaittot).

ratzen badugu beste hizkerek, Baztanera dela ezberdintasun nabarmenenak erakusten duen hizkera: "A primera vista se aprecia que la variedad de Elizondo (subdialecto de Baztán) es muy distinta de las otras cinco variedades del alto-navarro septentrional" (YRIZAR, 1981: 257). Diferentzia hauek zirela eta, Bonapartek aparteko estatusa eman zion aspieskalki honi, Lapurterarekin batu zuelarik egindako sailkapen batean. Hain zuzen ere, Goñafarreraren bi azpieskalki hauek -baztanerak eta ultzamerak, erakusten duten ezberdintasun nagusienetarikoa bat, aditz morfologiari dagokiona da; gainerako mailetan, izen morfologian, fonetikan eta sintasian kidetasun gehiago daudelarik.

2. El me ha (indef) *nau-* Arrarás, Goldaraz, Auza, Urrizola

dire- Berasaín, Beunza

dee- Múzquiz (YRIZAR, 1981: 23)

El me ha (aloc)

naik- Arrarás

nauk- Goldaraz

niok- Echalecu

zirek- Berasaín, Beunza

zeek- Múzquiz (YRIZAR, 1981: 31)

Ellos me han (indef) *naute-* Arraras, Etxaleku, Goldaraz, Urrizola

direte- Berasain, Beunza

deete- Muskiz (YRIZAR, 1981: 38)

Gaur egun, *deete* eta *direte* dira erabilera arruntekoak.

Erizkizundi Irukoitzean, ere, 232. 237. galderetan, Nork-nor-en erabilera testigatzen den adibide gehiago dauzkagu: hil nazazu (mátame), eta banamate (me llevan). Halaber, Gamindek Arraratsen eta Berueten (1980: 350, 355) bakarrik aurkitu zituen Nork-nor sistemen formak; *yaut, zaitut, zaitzet*.

Goi Nafarrera hegoaldean sistema hau ia erabat desagertua zegoen Bonaparteren garaian, hau ere aurrean esan dugunaren frogatzat hartzen dugu³. Hizkera guztietan berdina ez bazen ere; adib. Oltza haranean, Ihabar-en bildutako datuen arabera, ordezkaketa jadanik egina zen: *dee* (o de) por *nau*; *zeek* (o zek), por *n(a)ik*; *diete*, por *naute* (Yrizar, 1981: 362). Bestaldetik, -Inzak bildutako datuetan oinarriturik (Yrizar, 1981: 362), badakigu galera hau ez zela aspaldian gertatu GN hegoaldeko beste eremuetan (Artze, Erro, Auritzen eta Esteribarren), oraindik *nau* eta *naute* erabiltzen baitziren.

Gainera, Erroko testuetan, XIX mendekoak, (Satrustegi, 1987: 261) ere Nork-Nor aditz sistemaren formak usu agertzen zaizkigu: *gonbidatcen gaitu*, *bota nazucie*, *eremanaci nindue*, *ereman zaituzte*, *an adoratuco nauzu*, *etcinduzat ut-cico*, nahiz gaurko hizkeran nork-nori-nor sistemak erabat ordezkatu dituen. Ezkabarteko euskaraz, -Ultzamako barietatetik hurbilen dagoenaz- gauza bera esan daiteke⁴.

Yrizar, gure eremuan sortutako forma hauen galeraz mintzo zaigu, argi utziz galera berriki suertatu zela:

“Emilio Linzoain (Imoz, Berasáin, Beunza) pone de relieve el empleo del complemento indirecto en casos en los que correspondería el complemento directo: *dee*, *dire*, cuando lo correcto sería *nau*. Así, el informante de Múzquiz le manifestó que había conocido las formas de *dire*, cuando lo correcto sería *nau* y que había conocido las formas de tipo *nau*, pero que cuando él era pequeño, en Múzquiz únicamente se utilizaban las formas de tipo *dee*.” (Yrizar, 1981 II: 209).

Informatzaile hauen arabera, mende hasieran areagotu zela galera hori ondoriotza dezakegu. Gauza bera baieztatzeraz datoz Asteteren dotrinen bidez ateratako datuak (Ik. Ibarra, 1992: 931); Ultzameraz honako formak testigatzen baitira: *bediquetzen zaitut* (A6)⁵, *eroraci nai gatyu* (A19), *obliguetzen gatyu* (A21), *emaco gatyuena* (A51), *salbatuco nauela* (B54), *salvatu guiñucen* (A12). Era berean, (Bonaparte, 1881: 69): *berutasun betek kiskiltzen nau*. Jaki-na denez, katezismoetan ateratzen diren formek ez dute isladapen zuzena hizkera arruntean erabiltzen direnekin; askotan lehenengo hauek klitxaturik agertzen baitira. Adib. Akto kontriziozkoan, *zaitut* agertzen da: *maitatzen (t)zaitu(t)*, nahiz gaur hizkera arruntean *maite dizut* erabiltzen den.

Orain arte esandakoa laburbilduz, Nork-nor sistema ia erabat galdua dago eremu osoan -3. pertsonen dagozkien adizkietan ezik-, baina Basabu-

3. Horrela dio Yrizarrek: “En Elcano –y lo mismo sucedía en los otros pueblos del dialecto alto-navarro meridional en los que Bonaparte recogió la conjugación de los verbos auxiliares– desconocían las flexiones transitivas bipersonales (nor-nork) con objetos directos de primeras y segundas personas, tanto del singular como del plural, y empleaban en su lugar las correspondientes tripersonales (nor-nori-nork)” (YRIZAR, 1992: 4).

4. Aipu honen bidez, argi gelditzen da:

“La diferencia fundamental –puesta de relieve por Artola– es que, mientras en el catecismo se emplean las correctas flexiones transitivas bipersonales del tipo ‘gaitu’, en el uso actual son incorrectamente sustituidas por las correctas tripersonales del tipo digu” (YRIZAR, 1992: 57).

5. A-letra, zenbaki batez jarraitua denean, edizioko zenbakuntzari egiten dio erreferentzia, beti katezismoaren zenbaketa izango da hor agertzen dena.

ruan denbora gehiago iraun duela bizirik esan daiteke, gaur erabiltzen diren forma urrriek adierazten dutenez.

2. PLURALGILEAREN ERABILERAZ

Pluralgileaz den bezainbatean, Nork-nori-nor sisteman, bereizketa nagu-si bat egin daiteke: *-zki-* morfema aukeratzen duten euskalkiak, eta *-it-* aukeratzen dutenak.

Azkuek azpimarratzen duenez, *-it* da Nafarroako euskalkien berezitasuna, gipuzkera *-zki-* hartzen duelarik⁶. Halaber, Inzak egindako ohar honetan, aski isladatzen da aurrean esandako hau, azterturiko eremuan bereziki:

“Basaburu Goiko ta Imotz’ko erri guzietan itzegiten den euskalkitxo ontan gauzazko garai geienetan baditu bi esanera, aunitzezkoa esateko. Goi-Napar Iparaldeko t ta zki bi askolariak ibiltzen dituelako. An esaten dute tiot, eta dizkiot; tizugu ta dizkitzugu, zitizun eta zizkizun, zitizten eta zizkizten. Almenazko garaietan ere bi askolari ibiltzen ditute: tx eta zki (garai batzuetan; ortik detxaeten eta dezazkieten esatea)” (Inza: 73, 74).

Hona nolako banaketa egin daitekeen gure eremuan, pluralgileen erabilerarekin: eremu honetako mendebaldean, *zki* eta *it* pluralgileak erabiliko dira eta ekialdean, aldiz, *-it-* izango da maiztasun haundien erakusten duena. Are gehiago, Anue haranean, *tut, tiot* eta horrelakoak izango ditugu ohizkoen, *-[t]-*ren bustidurarik gabekoak; forma bustigabe hauek oso ohizkoak dira GN hegoaldean ere, eta horregatik GN hegoaldekoarekin kidetasun gehien erakusten duen harana Anue da: hau delarik suertatu den bilaera: **ditiot > itiot > ttiot > tiot*.

Honenbestez, Anue haranak kidetasunak erakusten ditu: Egues, Olaibar, Artze, Erro, Auritz, Gares, Oltza eta Gulinarekin, denetan *-t-* erabiltzen baita. (Ik. Yrizar, 1981a: 350). Jakina denez, eta Yrizarrek (1992: 53) ere, GN hegoaldeko barietateak aztertzean, argi esaten duenez, zenbat eta GN iparraldetik gehiago urrundu, gutxiago agertuko dira forma bustiak⁷.

Halarik ere, GN hegoaldekoaren barruan banaketa ez da hain tinkoa, euskalki honetan ere bi motako morfemak agertzen baitzaizkigu: Garesen (GN hegoaldea) aditz iragankorretan *-zki-* morfema testiga daiteke: *dizkiozu, zikionat, dizkiot* etab. Halaber, Olaibarko barietatean, Ultzameratik hurbilen dagoena, Nork-nori-nor aditz sisteman, txandaketa aurkitzen da eta *tizugu, ttizugu* eta *dizkizugu* formak ditugu Makirrianen, azkenekoa *-zki-* duna maiztasun gutxi badu ere. Badirudi forma busti hauek, Ultzama haranarekin

6. “El dialecto nabarro de la frontera se aparta radicalmente del dialecto guipuzkoano en las flexiones de objeto plural; pues mientras su característica en el dialecto es por lo general *zki* (en ciertas zonas *tzi, txi*) en la frontera se usa, aunque ya muy metamorfoseado, el mismo elemento *it* de flexiones meramente objetivas” (AZKUE, 1923: 103).

7. “Si se observa que Ciaurritz y Anocibar son los dos lugares más meridionales del valle de Odieta en los que se han recogido flexiones y que los otros dos valles se encuentran todavía más al sur, resulta evidente que la palatalización desaparece al alejarse del límite de separación de los dialectos alto-navarros”.

duren hurbiltasuna erakusten dutela. Haran honetan, Yrizarrek (1992: 53) azaltzen ditu pluralgileari buruz sortzen diren alternantziak, Artolaren honako hitzak ekarritz: “*t*-ren zenbait bustidura –gutxi samar, hala eta guztiz ere– Ultzaman oso hurbil izatetik etorriko zaiola pensatzen dut”.


Orain arte esandakoa laburbilduz, esango dugu goi-nafarrera hegoaldekoaren ezaugarri nagusienetariko bat, –*it*– pluralgilearen erabilketan datzala. Honetan ere, Ultzamak goi-nafarrera hegoaldeko hizkerarekiko kidetasunak erakusten ditu, eta Imotz eta Basaburua, Gipuzkerako paradigmetera eta baita GN Iparraldeko beste honako barietateera: Bera, Arakil, Intza eta Irun-go hizkeretara hurbilduko zaizkio.

Azken ondorio bezala, hiru pluralgile hauen erabilpenean, salbuespenak salbuespen, honako banaketa diatopikoa eman daiteke;

a/ *zki* eta *tt* Basaburuan eta Imotzen⁸

b/ *tt* Ultzaman eta Atetzen.

c/ *t* Anue haranean.



8. Hiztunei galdetzerakoan bi formak ezagutu eta erabiltzen dutela baieztatzen badute ere, alegia-*tt* eta -*zki* dunak- hizketa arruntean, -*zki*-dunak gutxiago entzungo dira. Basaburua aldean, ordea, -*zki*-ren erabileraren maiztasuna areagotzen da. Imotz eta Basaburuan -*it*- eta -*zki*- erabiliko dira nork-nori-nor aditz sisteman, -*tt*- soilik Ultzaman, eta Atezen, eta *t*- *Anuen*.

3. SINGULARREKO 2. PERTSONA

Fonetika sintaktikoaren fenomeno hau ere, azpimarragarria suertatzen da: singularreko 2. pertsonari dagozkion aditz laguntzaileetako formek, /h/-ren ordeztu, y- elementu protetikoa atxikitzen dute: adib. *hi yaiz*, *yabil*, *yago*, *egoten yuen* eginez. Goi-nafarrera, –gipuzkeraraino luzatuz–, erronkaria eta aezkerak dira forma hauek erakusten dituzten hizkerak, Azkuek aspaldian adierazi zuenez⁹.

Lafonek eta Mitxelenak diotenez, 2. pertsona singularrean testigatzen den forma hau, berrikuntza dirudi. Mitxelenaren ustez (FHV: 193), [š]-en frekuentzia haundia duten euskalkietan ere, [š] batek euskararen *j ordezkatu du: *xakin*, *xan*, *xo*. Baina aldaketa hau 2. pertsonetako aditz formen laguntzaileetan ez du eraginik izan, horregatik aditzetako y- hau: (*yaiz*, *yuen*, *yago*) etab, berrikuntza dela baieztatzen garamatza. GN hegoaldeko barietateetan, –Olaibar, eta Esteribar, eta Errokoan– txandaketa agertzen da, eta *yaiz*, *aiz*; *itzen*, *yitzen*, *ittuen*, *yittunen* formak ditugu; aldiz ekialderago daudenetan: –Elkano, Oltza, Goñi, Olaibar, Artze, Arakil, eta Garesen, ez da y- protetikorik (ik. Yrizar: 1992).

Mitxelenak aipatzen du beste posibilitate bat, (SHLV I: 286): alde batek berrikuntza izatearen alde makurtzen da, eta bestetik, aditz forma hauek beti partikula baten atzetik joatearen ondorioz sortzen direla dio: (*ba-*, *bait-*, *ez-*). Bestaldekik, Azkuek aipatzen duen *yi* (*yire* etab) formak, 2. pertsonaren izenordainaren funtzioan dagoena, analogikoa izango zen; halarik ere, eremu honetan horrelakorik ez dugu eriden.

Banaketa diatopikoaz den bezainbatean, azpimarratu behar da, aztertutako forma protetiko hauek eremu guztian zehar hedatzen direla: Basaburua, Imotz, eta Ultzaman ere inolako salbuespenik gabe.

4. -KO ETA -EN MORFEMEN ERABILERA GERO ALDIAN

Ultzamako hizkeran, bada azpimarragarria suertatzen den beste ezaugarri bat: kontsonante sudurkaria eta albokariaren ondorengo leherkari ahoskabea, ahostun bihurtzeko joera ez da betetzen aditzetako geroaldiko -ko morfemarekin. Jakina denez, *n* eta *l*-ren ondorengo herskari ahostunen aldeko neutralizazio hau, ohizkoa da erronkaria eta zubereraz ezik. Aurrean esan bezala, Ultzaman, -n-z bukaturiko aditzei: *egin*, *jan*, *erran*, *jakin*, -ko gero aldiko

9. "Esta y, como elemento paciente de segunda persona, figura en flexiones de varias comarcas del dialecto alto navarro. Aun en Oyarzun, Ondarrabia e Irun son todavía corrientes las flexiones *yaz* o *yaiz* eres, *yabil* andas, *yao* o *yago* estás y *yoa* te vas. *Yaz* y *yao* son de Oyarzun. ¿Se deberá esto a contaminación o más bien a que un tiempo se haya dicho en esta misma variedad *yi* por *i*, como todavía hay en el roncalés? ¿Tal vez alguien opine que esas *yaz* o *yaiz*, *yago* y *yabil* contienen la misma *y* de Santa Yagueda, biar da Santa Yagueda?" (AZKUE, 1923: 222- 223). Elkanoko euskaraz: *bayue*, *baue* ematen du ONDARRAK (1982: 172). Badirudi, GN hegoaldekoan ere erabiltzen dela, sistematikoki ez bada ere.

morfema eransten zaienean: *einko*, *yanko*, *erranko*, *janko* formak ematen dituzte.

Fenomeno honen banaketa diatopikoa, honako hau da: Ultzaman eta Anuen gertatzen da, eta ez da, usuenik, Basaburua eta Imotzera hedatzen. Halarik ere, Latasan (Imotz), agertzen da behin (EAEL: 191 grabaketa 1. atala. 1. zatia) transkribaketa batean, eta Erbitin (Basaburuan) behin edo beste entzun dugu. Aipatu behar da, forma hauek eguneroko elkarrizketan *errain* eta *joain* baino maiztasun gutxiago erakusten dutela, eta agian hedatuago egon zirela Imotz eta Basaburuan aurkitutako testigutza urriengatik, gero atzeraketa jasan zutelarik.

Hona aditz hauen geroaldiak:

erran	erranko
egin	inko
edan + KO ->	edanko
jakin	jakinko
egon	egonko

Aurrean esan bezala, ahostuntzeko joera ez da erabatekoa, eta Bonaparte izan zen honetaz ohartu zena, alegia, joera hau ez zela inon burutu, eta gipuzkeratik hartutako *Jainkoaren ontasuna* sintagman dauden ahoskabe biak (k,t) aipatu zituen bilakaera burutugabe horren erakusgarri. Euskal Herriko mendebaldeko muturretan (bizk. eta Araban), erdialdeko euskalkietan baino maiztasun haundiaoga erakusten dute *n,l*-ren ondorengo ahoskabeek. Hala-ber GN hegoaldeko Garesen eta Sakanako herrietan: *fanko*, *inko*, *joanko* erabiltzen dira (Arabatik oso gertu daudenak). Beraz, Ultzamako forma hauek arkaismoaren aztarnak izan daitezke.

Bestaldetik, ez da ahaztu behar, *-n* batez bukatutako aditzen geroaldia egiteko beste prozedura: *-en* morfema. Aditz hauei *-en* morfema eranstea, *-en* (>*in*) itxidura bilakabidea suertatzen da: *izein*, *egoin*, *emain*, *errain*, *yuain* eginenez, GN hegoalde eta iparraldeko (Baztaneraz) eremu haundi batean usu gertatzen da bilakabide hau. Batzuetan *-l*-z bukaturikoei ere hedatzen delarik: *illein* (= hilko).

Honainokoa laburbilduz: aditzaren geroaldian sorturiko *n*-ren ondorengo ahoskabe horiek, mantentzen dira bizirik Ultzaman eta Anuen, baina arras-toren bat aurki daiteke Imotz eta Basaburuan. Honenbestez, erabateko isoglosa ezin bada markatu ere, maiztasunaren murrizketa agerian gelditzen da, zenbat eta mendebalderago joan.

5. -TU, -DU-Z ADITZ PARTIZIPIO ANALOGIKOAREN ERABILERA

Aditzaren atal honetan, aipagarria deritzot ultzamerak erakusten duen ezaugarri bat aztertzeari: partizipio analogikoarena, hain zuzen ere. Jakina denez, *-tu*-z eta *-du*-z bukaturiko aditz partizipio analogikoak, erdialdeko euskalkietan sorturiko ezaugarria dugu.

Aditz hauen jatorriari buruzko hipotesi zihurrena latinetik etorritakoak izatea da. *-tum* latinaren atzizkitik, partizipio asko mailegatu ziren, eta

honen ondorioz euskararen partizipio analogiko ohizkoena dugu hau. (Azkue, 1923: 185). Partizipioak egiteko ezaugarri hau hedatzen da Ultzameraren eremu osoan, nahiko nabarmenki, *-n* nahiz *-i* bukaera duten aditzei *-tu*, *-du* morfemak eransten zaizkielarik. GN hegoaldekoan ere aspaldian testigatutako ezaugarria da, Muzkizko katiximan “egondue” eta “izandu zue” ditugu 8. orrialdean, eta 17. ean “vicitubearduela”; baita Lizarragak ere, “botatu” darabil.

Jakina denez, *-i* eta *-n-z* bukatzen diren aditzak zaharragoak dira, eta batzuen eta besteen artean ezberdintasun argi bat ikus dezakegu: *-n-z* bukaturikoak bokal atzean doaz, eta *-i-z* bukaturikoak kontsonante atzean. Gehienetan *-du* izango dugu, *-n* edo *-l* -ren ondoan, goian aipatutako ahostuntzeko erregela dela eta; hona hemen bi aditz motak:

1)
-n-> -ndu
 izan->izendu
 egon->egondu
 jakin->jakindu
 egun->egundu (‘tejer’)
 ezagun->ezagundu (‘zauntzen diot’)

2)
-i->tu
 bizi->bizittu
 ibili->iillo (Beruete)
 eskeini->eskeindu
 ortzi->ortzitiko¹⁰

Gaur egun, izena aditz bihurtzeko euskarak duen prozedura bakarra *-tu* *-du*, erabiltzea da. Aspaldian *-i* erabiltzen zen, baina era honetako aditz gehienak *-tu* kopurura pasatu dira, adib.: *sarri -> sartu*; *bihurri -> biburtu*; *neurri -> neurtu*; *zauri -> zauritu*.

Barietate honetan, aspektu burutugabea ere, batzuetan *-tu*, nahiz *-i*-ren ondoren *-alegia*, partizipio morfemaren ondoren egiten da: *urtu -> urtutzen*; *bistu -> biztutzen*; *itzali -> itzaltzen/ itzaltzen*. Batzuetan, bi partizipio jarraian, eta biak *-du-z* eraikiak entzun daitezkeelarik: *ez naiz egondu izandu* (Goldaratz).

Azterturiko eremuan, *-du-z* eraikitzeke joera oso nabarmena bada ere, graduzko ezberdintasun bat azpimarra daiteke: zenbat eta Mendebalderago joan, joera hau areagotzen da, alegia, Basaburuan arruntagoak izango dira

10. Nahiz eta *guk ortzitu* partizipioa ez dugun testigatu, *ortzitiko* erabilera eriden dugu Arostegin (Atetz), (ECHAIDE, 1989: 199. galdera). Txandaketa bada ere, Anue, Ultzama, eta Atetz haranek ortzi aldaerari eusten diote, eta Imotz eta Basaburuak, ordea, *enterratu* aldaerari bete berean.

forma hauek. Ultzaman, aldiz, GN hegoaldeko kidesun gehiago erakutsi-ko ditu eta partizipio analogikoa ez du holako maiztasuna izango. Honen erakusgarri, hor ditugu Beruete formak (Basaburuan): *iillo* (= ibili) *edo bialdu, aindu*. Ultzaman *-i-z* bukaturikoak mantentzen diren biartean: *bigeli, igorri, etzin*.

Laburki bada ere, hurrengo bi aditz hauen banaketa diatopikoa, orain arte esandakoaren adierazgarria da:

ULTZAMA	BASABURUA/IMOTZ
ahantzi/ atzendu	ahaztu ¹¹
bigeli, igorri	bialdu, a(g)indu
otzi/enterratu	enterratu/

6. -TUKO / -TIKO TXANDAKETA

Hurrengo lerrootan, gero aldian sorturiko ezberdintasun bat izango dugu aztergai; euskaraz *-du-z* bukaturiko partizipioen gero aldiko aditzak egitean, *-tuko, -duko* formak sortuko dira euskalki batzuetan, eta besteetan *-tiko, -diko* izango ditugu: *bildiko, agindiko* etab. eginez.

Ultzaman, *-tu* atzizkiko bokalaren palatalizazio ohizkoa da gero aldiko *-ko* morfema eranstea, eta behar segitzen zaionean. *-du* eta *-tu* partizipioaren bukaerak *-ti* bihurtzen dira ondoko bi ingurune hauetan:

Partz. -TU, -DU + KO	-> [tiko]
Partz. -TU, -DU + BEHAR	-> [tiar]

Hauek dira ultzameraz aurkitzen ditugun ebakera arruntak:

a/ *-Ko* etorkizunezko morfemarekin:

<i>sartu</i>	—————> <i>sartiko</i>
<i>akonpañatu</i>	—————> <i>akonpañatiko</i>
<i>oroitu</i>	—————> <i>oroitiko</i>
<i>gelditu</i>	—————> <i>gelditiko</i>
<i>ortzi</i>	—————> <i>ortzitiko</i>

11. Echaidek ere, banaketa honekin bateratsu dator: “El cuarto concepto ‘olvidar’ está distribuido entre variantes tipo *aztu* al Oeste y *atzendu* al Este, que alcanza hasta Odériz, en el valle de Larraun, dejando aparte las variantes *aatzi, antzi* de Cinco Villas y las salacencas *atze, atzen, atzezi*. ECHAIDE, 1988, *Límites de variantes léxicas en el área del alto navarro septentrional*, in Euskara biltzarra, II. alea, *Hizkuntza eta gizartea*, (353-357), 355. Halaber, (ik. ECHAIDE, 1989: 233. galdera-ren erantzunak:) Anue, Ultzama, Atetz eta Muskitz herrian (Imotz), eta Itsason (Basaburua): *atzendu* erabiltzen dute; Basaburuan eta Etxalekun: *aztu* darabiltzatelarik.

b/ *-Behar* aditz laguntzailearekin:

afaldu behar duzun ————> *afaldiauzun*
errezatu behar duzu ————> *errezatiauzu*
pagatu beharrak izanda———> *pagatiarrak izenta*
presentatu behar duten ———> *presentatiauten*
pasatu behar dituzun———> *pastiaittuzun*
gelditu behar duzu ————> *gelditiauzu*

Aipatutako hau, erregelaren bidez zehaztu behar badugu, esango dugu tasun baten aldaketa suertatu dela [+ Atze] > [- Atze], bi morfemaren atzetik: *-ko* eta *-behar*. Bigarren kasuan, garapena beste bi pauso hauen bidez zehazten da:


-b- > Ø	Bokal arteko frikapena
-ea > ia	/e/ bokalaren ixketa
-r > Ø / __dut	/r/-ren ahulketa
-D (dut, duzu..) -> Ø	-d hasierakoaren galketa

Azpmarratu behar da erabilerari buruz honako hau ere: palatalizazio hau elkarrizketa arruntean barra-barra suertatzen bada ere, galdetegi bat egiterakoan ez da sistematikotasun osoz ebakitzen. Guk egindako galdetegi batean: *-tuko* formak aurkitu baikenituen: *mugittuko*, *aittuko*, *manatuko*, *desayunatuko*, *bazkalduko*. Honek zerikusia du, dudarik gabe, hizkera zaindua lortzeko ardurarekin; jakina denez, galdetegi batean hiztunak ahalik eta zainduen ebakitzen saiatzen dira, eta hizkera arduragabekoaren arrastoak baztertzen dituzte. Badirudi zentzu berean doazda, *-estiloaren* aldaketa azpmarratuz—, N'Diayeren hitz hauek, Baztango euskarari buruzko erreferentzia honetan:

“Le participe futur est formé avec le suffixe -ko sur la base du participe passé, mais, dans le stylo allegro, à la place de la voyelle finale u du participe passé, peut apparaitre la voyelle i: allatuko ~ allatiko” (N'Diaye 1970: 195).

Aztertutako fenomeno hau Ultzama, Atetz eta Anue haranetan gertatzen da; transizioa Muzkitz herrian hasten delarik (Imotz) *-honetan* ere, *-tiko* erabiliko dute—; haran hortako beste herriak *-tuko* formari atxikiz, eta baita Basaburukoak ere; honenbestez, Basaburua eta Imotzen (Muskitz herrian ezik), *-tuko* formak izango dira nagusi.

Eremu honetaz landa, ezaugarri hau goi nafarrera hegoaldean nahiz iparraldeko zenbait euskalkitan gertatzen da (adib. baztaneraz); eta baita ekialdeko beste batzuetan ere, adib. aezkeraz, *behar* segitzen zaionean. Aztertutako ezaugarri honen banaketaz, gauza bera baieztatzen da: Imotz eta Basaburua mendebaldeko hizkerekin lerratuko dira, eta Ultzama, GN hegoalde eta ekialdekoekin.



7. PLURALEKO BIGARREN PERTSONARI DAGOKION MORFEMA: -ZIE / -ZUE

Ekialdeko eta GN hegoaldeko euskalkiei dagokien beste fenomeno bat ere interesgarria suertatzen da aztertzea. Eremu honetan, pluraleko bigarren pertsonako morfema, bai *nork* bai *nori* denean *-zie* da, ekialdeko euskalkietako, *-zaraitzueraz*, *baxenafarreraz*, *aezkeraz*— eta GN hegoaldeko bereizgarria dena

Gure eremua zatitua aurkitzen da, morfema honen banaketari dagokionez: Ultzaman, Anue eta Atetzen-: *duzie*, *zaizie* izango ditugu, eta Imotz eta Basaburuan: *duzue*, *zaizue*.

Aezkeraz eta Baztaneraz ere, baita Ondarrabiko hizkeraz bildutako *duxia*, *zaxia* ‘ezazue’, *zitzia* ‘itzazue’ horiek, eta beroni dagokion izenordainean (ziek) azalduko zaigu *u + bok > ia* aldaketa dela medio. Lafonek¹² (1965: 903-904) zuzen esan zuenez, ekialde osoan, —eta ez zubereraz bakarrik— betetzen da, gehiago edo gutxiago, aipatu aldaketa; bizkaiera, gipuzkera eta lapurtera direlarik salbuespen bakarrak. Agian aldaketa hau —Ultzamera, Baztanera eta Aezkerak erakusten dutena—, bokal eufonia horren arrastoak bide dira.

12. LAFON, R.: 1965, “Contact de langues et apparition d’une nouvelle voyelle: u et ü en basque”, *Actes du Xme. Congrès International de Linguistique et Philologie romanes*, Paris, Klincksieck, 901-905.

Irigoienek (1988: 292) dioenez, euskalki hauek *-te* pluralgilea erabiltzen duten horietarikoak dira. Azpimarragarria da forma hauek honako bilakabide fonetikoa (*esku + a > eskia*) gertatzen ez den lekuetan ere sortzen direla; beronen ustez, (1987: 21) adizki horietako gertakari fonetikoa garai batean egun baino zabalagoa izana da:

Las flexiones verbales del tipo badituzie llegaban hasta las inmediaciones de Pamplona, en hablas que no comparten con el sul., b.-nav. y ronc. las formas del tipo esku + -a > eskia, a través de eskuia, y que, como el b.nav., pertenecen al grupo que utiliza el pluralizador -te, por lo que hay que pensar en un fenómeno fonético que debió estar más o menos vigente en un área mayor que la actual y que fué rechazado en algún momento, dejando esta huella.

Zuazok (1989: 621) ere *ü + bok > i* gertakari fonetikoaren hedaduraz Zuberoko eufonia fokalikoez aritu da.

Honainokoa laburbilduz esango dugu isoglosa batek bereizten duela batetik: Ultzama, Atetz, eta Anue *-zie-ri* atxikiz, (baita Imotzeko Muzkitz herria); eta bestetik *-zutel/-zte* bukaera dutenak *-*zute > -zte* sinkoparen bidez: Imotz eta Basaburua. Bi hitzetan esanda, azken bi haran hauek erdialdeko formeetara atxikitzen zaizkio, eta berriro ere Ultzamako hizkerak ekialdeko hizkerekiko kidetasuna adierazten du. Isoglosa hau, eta *-tuko/ -tiko* banatzen duenak, eremu berbera hartuko du, eta horregatik, bat besterik ez dugu marraztuko.

8. AHALERAREN ERABILERA

Ahaleraren erabilerari dagokionez, bi ezaugarri dira azpimarragarriak: lehenengoa, ahalaria orain aldia eraikitze aditza aspektu burutugabea joan ohi da: *Ahal + .tzen : itten al duzu, joaten al da*. Bigarrena, ezezkoa denean, *Ezin + aditz nagusia + aditz laguntzailea* da ohizko egitura: *ezin in zuen*. Azpimarratu behar da *ezin*-en ondorengo aditz nagusia partizipioan doala, nahiz orain aldia izan: *ezin atera gara; ezin jaso zuen; eskallera ezin iyen zituen; ezin torri da; ezin in zun; ezin joan zate*.

Honez gain, beste berezitasun bat ere aztertu behar da, eremu handi batean gertatzen den beste forma bat, hain zuzen ere ahalezkoaren pluralezko formetan, *-ke* morfemaren erabilera pleonastikoa suertatzen da: *dezakezuke, dezakeguke, dezakezieke, dezaketeke* formak izanik. Forma hauek arruntekin txandakatzen dira, eta erabilera arduragabea, murriztuekin ere (*de- > ø*), hasierako morfema falta dutenekin: *zaket, zakezu, zakete*.

Forma pleonastiko hauek lehen aldira ere hedatzen dira, sistematikotasun osoz egiten ez bada ere, honelakoak entzun daitezke: *nezakeken*. Aipaturiko forma hauek, ziurrenik berrikuntzak dira, oso eremu murriztean gertatzen direlako, beraz hor sortutakoak dirudite eta ez direla arkaismoak baieztatu daitezke. Asteteren dotrinean aurki ditzakegu honakoak: *dezaqueguque* (A39) baina forma hauek arruntekin txandakatzen dira: *dezaquegun* (A39) ere badugulako.

Honenbestez, aurrean esan den guztia kontutan harturik, hauek dira Ultzameraz erabiltzen diren aldaki guztien laburpena:

1. *-Ke* morfemaren eransketa erakusten dituztenak, hauek Ultzama haranari dagozkio gehien bat: (adib. *dezakezuke*), baina Basaburuan ere aurki daitezke. Isoglosa eginez gero, Imotz harana litzateke forma hauek erabiltzen ez duen leku bakarra.

2. *De-* hasierako morfemaren galera erakusten dituztenak (*zaket*, *zakek/n*). Forma hauek ere ohizkoak dira GN Hegoaldean (Oltza, Goñi eta Garesen). Halaber, aginteran hasierako *e-* eliditzen da (*zazu*), agi denez forma hauek ohizkoak dira bokal aferesia dagoen lekuetan. (ik. Ondarra, 1982: 213 eta hurrengoak)

3. Orain aldian *-a-* erroaren orde, *-o-* daramaten formak eriden ditzakegu Anue haranean (Leazkue, Egozkue). Forma hauek ere GN hegoaldean testigatzen dira barra-barra, (Elkano, Gares, Oltza eta Goñi), nik-hari dagokion adizkietan (ik. Ondarra, 1982: 214). Honenbestez, bi euskalki hauen arteko kidetasunak nabarmenki azaltzen dira.

Hona aipaturiko hiru aldaera hauen paradigmak:

	1.	2.	3.
Nik		zaket	dezoket
Hik		zakek/n	dezokek/n
hark		zake	dezoke
Guk	dezakeguke	zakeguke	dezokeuke
Zuk	dezakezuke	zakezuke	dezokezuke
Zuek	dezakezieke	zakezieke	dezokezieke
haiek	dezaketeke	zaketeke	dezokete

9. PARTIZIPIOAREN ERABILERA: *-rik* / *-a(k)*. *ta*

Euskarazko aditz partizipioak, atributoaren funtzioan daudenean, honako bi morfema eraman ohi dituzte: *-(r)ik*, eta *-a(k)*. Lehenengoa askoz maiztasun haundiagoz agertzen da Ultzaman; eta ez dira *-ta* edota *-a(k)-z* eraikitakoak erabiltzen, hurrengo adibideetan ikus daitekeenez: *Lan asko iñi taude* (U); *Intxaurrak denak botarik izaten dire* (U); *Ongi kuidetuik nago ni*; *Yábiare átraik ziaáun* (Izag. 463); *Lumerua laugerrena etzian átraik kotxa?* (Izag. 463); *Aspertuik zagon*; *Atsandituik* (= arnas estua) *dago*; *illik dago*; *mejoratuik dago*.

Basaburuan ordea, *-a(k)* + *egon* maizago erabiltzen da; baina izenaren morfologiaren erregelaz jarraikiz: *-ua* > *-uu*, *-uak* > *uk* izango dugu.

Julia zeon ezkonduu (Bas); *Oso presumituuk izandu dee* (Bas); *Ni etortzeako erdi pastuu baitzen* (Bas); *Dena markatuu men dao* (Bas); *Pulmonak hartuk* (Bas).

Forma guzti hauek denak euskaraz erabiltzen dira, baina ezberdintasunak badaude euskalkien arauera ere, *-ik* + *izan* aukera, esate baterako, Zuberoan

erabiltzen da, eta hori bakarra da erabiltzen dena gainera. Beste aukera, *-ik + egon*, nafar-lapurteraz eta mendebaldeko euskara idatzi landuan maizago ageriko da.

Mendebaldeko ereduan, *-tal/-da* atzizkiak eramaten dituzte nolakotasun azaltzen duten kasu eta forma gehienetan, ekialdean “-ta” ere baden arren, maiztasuna oso urria da. Hau dela eta, morfema honen erabilpenari dagokionez, Ultzamako hizkera, lerratzen da gehiago Nafar Hegoaldeko¹³ eta ekialdeko hizkerekin, eta Basaburuan orde, erdialdeko euskalkien ezaugarriak nabarmenduko dira.

10. ADITZ OINAREN ERABILERA

Euskal Herriko mapa hartzen badugu, berehala ohartuko gara zenbat eta mendebaldeago joan, aditz partizipioaren erabilera haundiagoa aurkituko dugula aginterazko, ahalera eta subjuntibozko adizkietan adb.saldu; eta zenbat eta ekialdeago joan, aditz erroa usuago agertuko zaigula: adb.sal.

Eremu honetan, aditz oinaren erabilera oparoa da, hurrengo adibideek erakusten dutenez: *konta zairezu, hurbil zatte, yar zatte*.

Gauza jakina da, Euskal Herrian zaharragoa dela aditz oinaren erabilera bakarra, ahaleran, aginteran eta subjuntibo eran: *sal beza, dezake, dezan*. Bizkaiko testu zaharretan ere (*sal begi, sal dai, sal daian*) ager daitezke, baina ez sistematikotasun osoz.

Goi-nafarrerari dagokionean, Baztaneraz, nahiz eta arraroa izan aditz oinaren erabileraren adibideren bat ager daiteke: adib.*saldu dezan*. Ultzameraz, aditz oinaren erabilera sistematikoa ez bada ere, nahiko ohizkoa da hurrengo adibide idatziek adierazten duten bezala: *-i-z* bukaturikoek batzuetan galtzen dute *-i*, eta besteetan ez: *cusi gatyecen*, eta besteetan ez: *itzultchezu* (A2). Beste kasuetan, *-tu, -du > Ø* hona Astete-ren katezismoetatik hartutako adibideak: *goberna dezaten* (A20); *cusi ta oroi gatyecen* (A20); *salba zaitzala* (A2); *esca dezazula; lagun zakizkiguzu* (Astete); *sargachazu* (Astete); *ar gachazu* (Astete); *itzultchezu* (A2); *eracuts zaiguzu* (B2, A2); *aumenta zaigun* (A41). Baita gaurko hizketan ere: *hurbil zatte, konta zairezu, pentsa zazu* (Izag. 438), *yar zátte*.

Baina salbuespenak ere usu agertzen dira, idatzitako dokumentuetan: (Ik. Ibarra 1992: 930): *bediketu dezaten, ez daiteke iñor salbatu, erregutu dezazu, erdichi dezagula, eracuxi dezaiguzu, itzuli gaitecen, iduri dezagun*. Azpimarragarriak suertatzen dira, halaber, Bonapartek bildutako datuak, berauetan Lizasoko barietatean beti aditz partizipioarekin egindako formak agertzen dira¹⁴; honetan Ultzamerak erakusten ditu Irun, Bera eta Huarte Arakilekin kidetasuna, eta aldentzen da ekialdeko herrietan egindako galdetegietatik (Garraida,

13. Hona Muzkiko adibideak: “Bazuc despreciaturic eta abatituric”; Lizarragak, hauez gain, “-kiro” bikoitza erabiltzen du noizbehinka: “artzenbaitígu erchiquiró”, 35.ean: “guizon dvinogáu münduco arguirá atraríc”; 104.ean: “Espiritu Sanduac eracutsiríc”; 158.ean: “amolsuqui, ta gravequi”; 159. ean: “brevequiro”; 161.ean: “Gúciec gañerá botaric arrápatu ta lotuzúte” (UEU 1987: 231).

14. ARANA & ECHEGARAY, Doc. 33. Microfilm 2C2. Bonaparte: “Contestaciones a cues-

Uriz, Eaurta eta Bidankotze). Baztango barietatea ere, azken hauen barruan sailkatzen delarik.

11. ONDORIOAK

Ultzamako barietateak, GN iparraldeko euskalkien barruan kokatzen da, –honenbestez, erdialdeko euskalkia da– eta beraren barruan ekialde mendealdearen arteko transizioa bete betean isladatuko da. Honek suposatzen du GN hegoaldearekin ezaugarri asko konpartitzea, eta bestetik mendealdeko hizkeretako ezaugarriak bere barruan ere edukitzea.

Aztertutako hamar ezaugarri hauen bidez, argi ikusten da Ultzamako azpieuskalkiaren barruan bi eremu markatzen direla, alde batetik ekialdekoa: Ultzama, Atetz, Anue haranez osatutakoa; eta bestetik, mendealdekoa: Basaburua eta Imotz¹⁵ haranez osatutakoa. Bi eremu hauen artean sortzen diren isoglosak: batzuk nahiko graduzkoak dira (1. 2. 4. 5. 9. 10. adibideetakoak bezala, beste batzuetan aldiz, isoglosa tinkoagoak agertzen dira (6. eta 7. adibideetakoak bezala); eta besteetan ez dago inolako etendurarik, eremu guztian ezaugarri berberak gertatzen baitira (3. adibidea).

Aurrean erakutsitakoaren bidez, argi gelditu da isoglosak ez direla tinkoak eta mugagabeak; aitzitik, diakronian zehar isoglosa berriak sor edota desagertu daitezke. Elkarren ondoko bi dialektoren arteko aldakuntza diakronikoa aztertzen badugu, honelako harreman motak gerta daitezke, eta honen arabera isoglosa ezberdinak izango ditugu. Agi denez diakronian zehar, isoglosa batzu desagertzen dira, beste batzutan ez dago isoglosarik, diferentzia graduzkoa baita; eta besteetan, isoglosak sortzen dira lehenago graduzko diferentzia zegoen tokitik. Hona hemen, diakronian zehar isoglosak sortzeko eta desagertzeko modu ezberdinak: (Schouten & V. Reese eds 1980: 140)¹⁶.

1. <i>epealdia</i>	2. <i>epealdia</i>	<i>isoglosa</i>
1. graduzko diferentzia >	graduzko diferentzia >	ez dago
1. bapateko diferentzia >	bapateko diferentzia >	iraunkorra
3. graduzko diferentzia >	bapateko diferentzia >	sorketan
4. bapateko diferentzia >	graduzko diferentzia >	desagerketan

tionarios en dialectos del vascuence de Guipúzcoa y Navarra”. Lizaso: *artu datteke zerbait?*, *artu datteke ontza bat?*, *artu datteke usetzen dena?*, *erdechi dezakete mercheden batzuk?*, *eztateke salbatu gizona*; *da gauze bat erran dezakegun beño geyagokua*; *ezpadatteke konfesatu*.

15. Muzkitz herria, Imotz haranaren barruan dagoen arren, askotan transizio toki bezala agertzen da, eta besteetan Ultzamako hizkeratik hurbilago dago Basabururik baino. Beraz, Imotzen barruan, alde batetik Etxaleku egongo da, eta bestetik Muzkitz. Echaidek ere, honelako banaketa sumatu zuen, nahiz eta lexikoa izan azertu zuena: “Por todo ello, las preguntas del cuestionario que resultan de interés para nuestra zona pueden ser aproximadamente unas 60, y de ellas me voy a referir a 13 que son las que dividen el valle de Imoz entre Echalecu y Múzquiz.(...) Las isoglosas, con algunas diferencias, dividen la zona de NE a SO, confluyendo al sur entre Echalecu y Múzquiz” (ECHAIDE, 1988: 353).


16. Itzulpena nik egin da.

Lan honetan zehar erabili dugun ikuspegia batipat sinkronikoa izan da, nahiz diakroniari ere erreferentzia egin diogun; dena den goian aipatutako eskemarekin erabat ados gaude; argi baitago dialektoen arteko diferentzia graduzkoa dela zenbaitetan, besteetan bapatekoa, eta beste batzuetan ez dagoela inolako diferentziarik.



Bukatzeko, aipatutako ezberdintasun guzti hauez gain, badira aditz morfologian beste diferentzia batzuk, bi eremu hauek banatzen dituztenak, alegia leku beretik pasatzen direnak. Ezberdintasun hauek fonetikari dagozkio gehien bat, –alegia bilakabide fonetikoaren fruitu dira–, eta ez aditz morfema ezberdinak erabiltzetik. Hurrengo lerrootan emango ditugu laburbilduak:

1) Aditz sintetikoetan, *egon* aditzean: Ultzaman *gaude*, *zaude*, *daude* formak nagusi diren bitartean, Basaburuan Mendebalderago dauden herrietan (Arrats, Igoa eta Goldaratzen): *gai*, *zai* eta *dai* izango ditugu. Informazio gehiagorako, ikus Gaminde (1985b). Halaber, Joan aditzaren orain aldiko forma sintetikoetan, polimorfismo haundia gertatzen bada ere, honelako isoglosa nagusiak azpimarra daitezke: Ultzaman *nuaye*, *duaye* edo *naye*, *daye* etabar diren bitartean; –*oa*– erroaren ondoren –*y*– epentetikoa eraman ohi dute. Basaburuan, –Mendebalderago dauden herrietan–, aldiz: *nii*, *dii* edo *nie*, *die* dira *joan* aditzaren orain aldiko formak.



2) Nork aditzaren lehenaldian: *nuen*, *yuen*, *zuen* formak ohizkoak dira Ultzaman, Atetzen, Anuen eta Imotzen, baina Basaburuan eta Imotzen *ue* > *u* murritzeta fonetikoaren ondorioz: *nun*, *zun*, *giñun* etabar izango ditugu.



3) Orain aldian ere, Nork aditzean Ultzaman *dut, duzu...* ohizko horien aurrean, Basaburuan *dot, dozo...* etabar dira nagusi; u > o bokal irekitzea dela medio.




4) *Nor* aditzaren orain aldian, Ultzaman *gara, dira, zara* horien ordezt, Basaburuan ohizko frikapen erregelaren bidez -r- > Ø, *gaa, dee*, eta *zaa* dira na-



gusi. Erregela berberak funtzionatzen du nori *neri*-ren (hark-neri) morfemak jokatzeko duenean: euskara batuan: *dit*, Ultzaman *dire* eta Basaburuan *dee*, bokal arteko *-r-* hori desagertzen delako. GN hegoaldeko barietateetan, forma berberak testigatzen dira: *direzie*, *direte*, *dire*, *direzu* etab; berriro ere bi barietate hauen arteko kideatasunak agerian utziz.

5) *Eraman* aditz sintetikoaren pluralgilearekin, *-damatxat-* eta horrelako formak dira ohizkoenak Ultzaman; aldiz, Basaburuko eremuan *deamazkit* etab. aurkituko ditugu. Bi gauza dira azpimarragarriak aditz sintetiko honetan, alde batetik ikusten da pluralgilearen banaketaren isoglosa, nondik nora doan (ik. 2. atala). Honezaz gain, badago beste diferentzia bat, Ultzamako eremuan, *eman* (= llevar) da aditzaren partizipioa, eta aldiz, Basaburuan *eraman*. Bi forma hauek gurutzatzen dira Muzkitzen (Imotzen), zeren *-zki-* erabiliko dute *eman* aditz partizipioarekin, berriro ere transizio herriaren estatusa baieztatuz: *damat* (sg.) baina *damazkit* (pl.).



Hona eskematikoki aurrean azaldutako isoglosak¹⁷:

	ULTZAMA	BASABURUA
Pluragilea	-tt-/t-	-tt-/zki-
GEROALDIA -n,-l+KO	erranko	esango
GEROALDIA -tuko/-tiko	gelditiko	geldituko
NORK 2.Perts. pl.	-zie (duzie)	-zte (duzte)
AHALERA (o.aldia)	dezakezuke dezokezu	dezakezu
PARTIZIP.	ezkonduik	ezkondue/ezkonduu
EGON	gaude zaude	gai zai
JOAN (o.aldia)	nuaye, duaye	nii, dii
NORK o.aldia	(-u-) erroa dut,duzu	(-o-) erroa dot,dozo
N-N-N Neri.morf.	-r- (dire)	-Ø- (dee)
NORK (l.aldia)	nuen, yuen	nun,yun
NOR (o.aldia)	-r- gara, zara, dire	ø gaa, zaa, dee

BIBLIOGRAFIA

- ALLIÈRES, J.; 1981, "La dialectologie basque", *Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea Argit. Bilbo, 103-114.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA; 1983, *Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa*, EAEL, 2 ale.
- ASTETE, G.; 1906, (A) *Cristau Doctrinë Aita Gaspar Astelec erdaraz esribitue eta Ultzamaco Apezac Balle ontan yarduquitzen den usquerara biurtue*, Iruñea.

17. Nahiz eta guk Ultzama eta Basaburua jarri dugun izenburuan, Ultzamaren izenpean, Atetz, Anue, eta Ultzama haranak sartzen dira; Basaburua izenburuaren azpian, ordea, Basaburua eta batzuetan Imotz ere sartuko dira barnean, banaketa zehatzagoa ikusteko, mapetara jo behar da.

- AZKUE, R. M.; *Morfología vasca* (3ale), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- CHAMBERS, J. K., TRUDGILL, P.; 1980, *Dialectology*, Cambridge University Press, Cambridge.
- ECHAIDE, A. M.; 1984, *Erizkizundi Irukoitza* (Euskera 1925), Iker-3, Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1989, *El euskera en Navarra (1965-1967)*. Eusko Ikaskuntza (Hizkuntza eta Literatura, 8. zb.), Donostia.
- 1985; “Algunos materiales para el estudio de los dialectos vascos en Navarra”, *Aingeru Irigaray-ri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, 113-123.
- EUSKALTZAINDIA; 1991, *Nazioarteko dialektologia biltzarra agiriak*, Iker 7, Bilbo.
- FRANCIS, W.; 1883, *Dialectology*, An Introduccion, Longman Group UK Limited. New York 1983.
- GAMINDE I.; 1985a, *Aditza Ipar goi Nafarreraz*, III Tomoa, Udako euskal Unibertsitatea, Iruñea.
- 1985b, “Nor-en ahalezko oraina eta joan, ibili edo egon aditzen alokutiboak”, *FLV* 46, 215-263.
- GONZÁLEZ ECHEGARAY, C.; “Catálogo de los manuscritos reunidos por el príncipe Luis Luciano Bonaparte que se hallan en el País Vasco”, *Euskera* XXIX-1, 23-184, Bigarren arg.; Bilbo, 1989.
- HOLMER, N.; 1964, *El idioma vasco hablado*, ASJU-ren gehigarriak, 5, Donostia, Gipuzkoako Diputazioa.
- IBARRA, O.; 1992, “Ultzameraz idatzitako bi dotrinaren edizioa eta azterketa”, *ASJU* XXVI-3, 915-977.
- INTZA, D.; 1921-22, “Naparroako aditz laguntzailea zuketazko esakeran” in *Euskera* II, 3-35 eta III, 65-91.
- IRIGOIEN, A.; 1987, *De re Philologica Linguae Vasconicae* II, Bilbao.
- 1988, “Algunas cuestiones relacionadas con la [j] en la lengua vasca”, in *Euskara Biltzarra, Hizkuntz deskribapena*, 1. alea.
- IZAGIRRE, E.; 1966, (Izag.) “Ultzamako euskeraren gai batzuk”, *BAP* XXII, 403-467.
- JACEK FISIÁK (argit.); 1988, *Historical Dialectology Regional and Social*, Mouton de Gruyter, Berlin - New York - Amsterdam.
- 1967, “Altsatsuko euskeraren gai batzuk”, *ASJU* I, 45-97.
- LETAMENDIA, J. A. & SAGARZAZU TX.; 1992, “Hondarribiko hizkera Roque Jazinto Salazarren Predikuan (1778)”, in *Iker* 7, 497-533.
- MITXELENA, K.; 1976, “Acentuación alto-navarra”, *FLV* 23, 147-162 [berrarg] 1987-ean in *Palabras y textos*, Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea, 145-260.
- 1977 (1960), *Fonética histórico vasca*, FHV, San Sebastián: Publicaciones del Seminario “Julio de Urquijo” de la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián.
- SHLV, 1970, *Sobre la historia de la lengua vasca*, Assuren gehigarriak, 10.zb. Donostia, 2ale.
- N'DIAYE G.; 1970, *Structure du diaslecte basque de Maya*, The Hague: Mouton.
- ONDARRA, F.; 1982, “Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”, *FLV* 39, 133-228.
- PAGOLA R. M. eta beste; 1992, *Euskalki literarioak*, Gauntza Sorta, Bilbao.
- 1992, *Euskal fonetika Nafarroan*, Nafarroako Gobernua.
- ROTAETXE, K.; 1987, *Estudio estructural del euskera de Ondárroa*. Durango; Ed. Leopoldo Zugaza.

SALABURU, P.; 1977, *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta Fonologia, bi liburuki*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao.

SATRÚSTEGUI, J. M.; 1987, 1988, "Textos dialectales en documentos religiosos vascos", Goldaratz *FLV* 50, 317-331 eta Larrainzar *FLV* 52, 267-289.

SCHOUTEN, M., VAN REENEN, P.; 1989, *New Methods in Dialectology*, Publications in Language sciences, Foris Publications.

THOMAS, A., ed. 1988, *Methods in dialectology*, Multilingual Matters LTD, Clavedon, Philadelphia.

TRUDGILL, P.; 1986, *Dialects in contact*, Language in society, Ed. Peter Trudgill, British Library Cataloguing in Publication Data.

U; Ultzama.

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA; 1987, *Euskal dialektologiaren hastapenak*.

YRIZAR, P. DE; 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 2 ale, Editorial franciscana, Aranzazu- Oñate.

– 1992, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*, Euskaltzaindia, Nafarroako Gobernua.

ZUAZO, K.; 1989, "Zubereraren sailkapenerako", *ASJU* XXIII-2, 609-650.

LABURPENEA

Lan honen bidez, Ultzamako aditz sisteman aurkitzen diren berezitasun nabarmenenak aztertzea dugu helburutzat. Hamar ezaugarri aukeratu ditugu, garrantzi gehien daukarrenak banaketa diatopikoari dagokionean, hain zuzen ere. Berauen bidez, Ultzamako aditzean sortzen den desberdintasuna, batzuetan graduzkoa eta besteetan bapatekoa, erakusten da. Aldi berean Ultzamako euskarak –erdialdeko euskalki bezala– ondoko hizkerekin dituen kidetasunak azpimarratzen saiatzen gara, bereziki Goi Nafarrera hegoaldekoarekin, zeinarekin kidetasun asko erakusten dituen.

RESUMEN

El objetivo de este trabajo, es dar a conocer las principales características del sistema verbal de la variedad de Ulzama. Hemos destacado diez de ellas, precisamente las que más importancia tienen en cuanto a la distribución diatópica. Por medio de las mismas se dan conocer las diferencias que sugen en el sistema verbal; algunas de las isoglosas que dividen esta área señalan un cambio abrupto, en cambio otras indican una diferenciación gradual. Al mismo tiempo, el objetivo del presente artículo es tratar de subrayar las relaciones que tiene el euskara de Ulzama, como dialecto central, con los dialectos contiguos, especialmente con el Alto-navarro meridional, con los cuales comparte un gran número de características.

RÉSUMÉ

L'objectif de ce travail, c'est de faire connaître les principales caractéristiques du système verbal de la variété de l'Ulzama. Nous en avons souligné dix d'entre elles, celles précisément que sont les plus importantes, compte tenu de la distribution diatopique. Grâce à elles, on peut connaître les différences qui surgissent dans le système verbal. Quelques unes des isoglosses que divisent cette aire, signalent un changement abrupt alors que d'autres indiquent une différenciation graduelle. De même, l'objectif de cet

article c'est d'essayer de souligner les relations de l'Eukkara de l'Ulzama, comme dialecte central, par rapport aux dialectes contigus, et plus spécialement avec le Haut Navarrais Méridional, avec lesquels in partage bon nombre de caractéristiques.

SUMMARY

The aim of this paper is to present the main features of the verbal system of the variety of Ulzama. Ten distinctive features have been pointed up, precisely the ones which are most important with regard to a diatropic distribution.

Through these features the differences that appear in the verbal system are presented. Some of the isoglosses which divide this region mark an abrupt change, while others mark a gradual differentiation. At the same time, this paper attempts to underline the relationship between the Euskera of Ulzama, as a central dialect and its neighbouring dialects, especially the Southern High Navarrese with which it shares a great many features.

